

UPV/EHUko irakasleak

Miren Igone Zabala



Kategoria: Unibertstitateko Irakasle Titularra (Doktorea)

Jakintza-alorra: Euskal Filologia

Saila: Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa

Ikastegia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Helbide elektronikoa: igone.zabala@ehu.eus

Telefonoa: (94 601) 2699

Biologia Zientzietan lizentziatua eta Euskal Filologian doktorea da. UPV/EHUko irakasle titularra da Zientzia eta Teknologia Fakultatean atxikita, eta bertan "Komunikazioa Euskaraz: zientzia eta teknologia" irakasgaia ematen du. Hainbat urtetan irakatsi du "Terminologia eta Testu Espezializatuak" master-irakasgaia ere. Doktoretza egin berritan sintaxian eta morfologian lan egin bazuen ere, duela 15 urte inguru haren ikerketa terminologiaren eta euskararen garapen lexiko-diskurtsiboaren ingurukoa izan da neurri handian. Gaur egun Ixa ikerketa-taldeko kidea da. Argitalpenen inguruko informazio xeheagoa URL honetan:

<http://ixa.si.ehu.es/node/1394/132?language=eu>